

txintxarri



Kirolariak jasotzeko prest

Atsotakar kirol gune berria hilaren 21tik aurrera erabilgarri izango da entrenamenduetarako / 10

TXINTXARRI

Hitzak gorpuztu ditu, oholtzan

'Miñan' antzezlanaren erakutsiko dute, hilaren 25ean, kultur etxean; Ander Lipus zuzendaria elkarrizketatu du aldizkariak / 8-9

'Gurea erabil dezakezu' kanpaina aurkeztu dute Altxa Burua taldeak, udalak eta Aterpeak / 2

Gotzon Huegun eskultore herritarrak 'Sinkronia' erakusketa jarri du Donostian / 4

'Dos libros lasartearras del siglo XVII' lana aurkeztuko du Jose Luis Navarrok / 5

Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak salatu du irekita daudela bost errefus ontzitatik lau / 6

Ekintzaitza Kooperatiboko Eskolaren bederatzigarren aldia abiatuko dute 28an / 7

Aimar Sukunza eta Mari Carmen Olaso herritarrak, II. Euskal Kros Ligako podiumera igo dira / 11

UDAL EUSKALTEGIA - 2024-2025 ikasturtea

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK URTARRILAREN 31RA BITARTE

IKASTARO ERDIKO MATRIKULAZIOA

AURREZ AURREKOAK

Hiru ordutegi aukeran
Txandaka aritzeko aukera guztietan

AZTERKETEN PRESTAKETA

HABEren maila guztiak, A1etik C1era
A1 eta A2 mailak Euskaltegian bertan lortzeko dira.
OSAKIDETZA, IVAP, HEZKUNTZA, ERTZAINNTZA

INFORMA ZAITEZ

Diru-laguntza:
85% ikasle guztientzat
Eta deskontuak gazte eta langabetuentzat



C1
16-18 URTEKOENTZAT
35 EURO



Lasarte-Oriako Altxa Burua taldeko kideek, Aterpekoek eta udal ordezkariak berriki ezagutarazi dute 'Gurea erabil dezakezu' kanpaina. TXINTXARRI

Euren telefonoak erabil ditzakete

Lasarte-Oriako Altxa burua taldeak, udalarekin eta Aterpea merkatarien elkartearekin elkarlanean, 'Gurea erabil dezakezu' ekimena aurkeztu du. Egitasmo horren helburuetako bat da gazteei gailu elektronikoak ematearen adina atzeratzea

Txintxarri

8 eta 16 urte arteko haur eta nerabeei zuzenduta dago *Gurea erabil dezakezu* egitasmoa; adin hori zehaztu dute, hain zuzen ere gazteak sakelako telefonoa "modu autonomoan" erabiltzen hasten diren garaia delako. Hala adierazi dute ekimenaren berri eman dutenek: Juan Luis Eizmendik (Landa-berri-Garaikoetxea guraso elkarteko eta Lasarte-Oriako Altxa burua taldeko kidea), Maite Iglesias Hezkuntza zinegotziak, eta Luis Mari Carballo, Ventanas Alcar establezimenduko nagusiak. Bozera-maile horiek erakutsi dute herriko ikastetxeetako guraso elkarteek osatzen duten Altxa Burua Lasarte-Oria taldeak, Aterpea merkatarien elkarteak, eta Lasarte-Oriako Udalak bultzatuta sortu dutela.

Agerraldiaren hasieran kanpainaren helburuak zeintzuk diren azaldu du Eizmendik. Alde batetik, eta arestian aipatu bezala, haurrei telefono mugikorra erabiltzeko beharra murriztea lortu nahi dute. Horrez gain, gazteek esparru publikoa berreskuratu eta erabiltzea ere bada xedeetako bat; kaleak eta auzoak ezagutzea eta seguru sentitzea. Komunitateko kideen laguntza, babesa eta koordinazioa indartzea eta zaintza komunitarioa sustatzea ere bultzatu nahi dute, eta heldu erreferentzia gehiago izatea; gizarte-sarea indartzea.

Gauzak horrela, ekimenarekin bat egin duten zerbitzu publiko eta saltokiek haur-nerabeari telefonoa eskuragarri jarriko diote honek beharrezkoa badu erabil dezan. Hala, gazteek deiak egiteko aukera zein es-

tablezimendutan duten jakiteko, establezimendu parte hartzaileek ekimenaren lelo bera (*Gurea erabil dezakezu*) daraman pegatinekin identifikatu ahal izango dituzte.

Horren harira, kanpaina aurkeztu dutenek aipatu dituzte zeintzuk diren egitasmoarekin bat egin nahi dutenek bete beharreko baldintzak, baita hartu beharko dituzten konpromisoak ere. Alde batetik, esan bezala, Pegatina leku ikusgarrian jarri beharko dute, kanpotik erraz ikusten dela, eta, telefono finko bat edo lokaleko telefono mugikorra izan beharko dute (langileen telefono pertsonala erabiltzea ez litzateke egokia izango). Horrekin batera, haurrari edo nerabeari ahalik eta azkarren erantzun beharko dio, zain eduki gabe.

Zerbitzu hori eskaintzeaz gain, negozio bakoitzak datu jasotzea ere egingo du; taula batean jasoko dituzte zenbat haurrek eskatzen duten telefonoz deitzea. Bertan bilduko duten informazioa lagungarri izango zaie geroago (urtebetara) egingo duten baloraziorako. Azken lan horrekin erabakiko dute etorkizunean bide beretik jarraitu, edo bide berriak urratu.

Komertzioetan ez ezik, zazpi udal eraikinetan ere izango dute gazteek telefonoa erabiltzeko aukera, honako hauetan: Manuel Lekuona Kultur Etxea; Gaztelekua; Maialen Chourraut kiroldegia; Udaltzaingoa; Udaltzaingoa, eta Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroa eta Atsobakar kirol instalakuntza.

Herriko establezimenduak

Gaur-gaurkoz, Lasarte-Oriako 23 establezimenduk bat egin dute *Gurea erabil dezakezu* ekimenarekin. Hala ere, eta prentsaurrekoan agertu moduan, denborak aurrera egin ahal eta funtzionatzeko moduak bere bidea egiten duen bezala, gehiago batuko diren esperantza agertu dute.

Partaide izan nahi dutenek, ordea, badute horretarako aukera. Horretarako, Aterpea merkatarien elkartearekin harremanetan jarri beharko lukete aterpea.arantza@outlook.es helbidera mezu bat bidalita, edo 649 47 11 21 telefono zen-

Kanpainarekin bat egin dutenak

Udal eraikinak

- Manuel Lekuona Kultur Etxea.
- Gaztelekua.
- Maialen Chourraut kiroldegia.
- Udaltzaingoa.
- Udaltzaingoa.
- Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroa.
- Atsobakar kirol instalakuntza

Aterpeko merkataritza establezimenduak

- **Aritza mertzeria**
- **Arkupe taberna**
- Mabel Moda
- Ormazabal loradenda
- Marbell ileapaindegia
- La Geselina
- Leire Berasategi kafeak
- Lilura liburu denda
- Noelia Calero osteopatia
- Ventanas Alcar
- Eli Lasa farmazia
- Marian Olaizola ileapaindegia
- Josema burdindegia
- Bizker errotuluak
- Arregi elektrizitatea
- Bideo Lagunak
- Buenetxea taberna-kafetegia
- Herriko Etxea jatetxea
- Orbela ekodenda
- Urruzola mertzeria
- Sukoa burdindegia
- Olmi mertzeria
- Oihana estetika

bakira deituta. Lasarte-Oriako Altxa Burua taldearekin ere gauza bera egin dezakete, honako helbidera idatzita: lasarte-oria@altxaburua.eus. Bat egiten duten komertzioei izena, arduradunaren izena eta telefonoa eskatuko dietela ohartarazi dute arduradunek.

Martxan dauden esperientziak

Eizmendik azaldu du Gipuzkoako hainbat herritan martxan urteak daramatzaten esperientziak oinarri hartuta abiatu dutela Lasarte-Oriakoa. Horiek eredu hartuta, ikusi dute funtzionatzen dutela, eta herrian ere hala gertatzea espero dute.

"Erantzun ona" izan dute Eguberrietako jarduerak

Gabonetan antolatu dituzten ekimenak "jendetsuak" izan direla azpimarratu dute udal ordezkariak. Eguberrietako Haur Parkea bitan zatitu behar izan dute eta "intzidentzia" batzuk erregistratu dituzte; datozen urteetan hori hobetzeko konpromisoa hartu dute

Txintxarri

Urte hasierara, batez ere, Jaiak saileko zinegotzi Txus Alonso "akituta" iritsi bada ere, berak eta Agustin Valdiviak balorazio "oso ona" egin dute udalak Eguberrietan antolatu dituen jarduerara sortari buruz. "Jendetsuak izan dira guztiak eta lasarteoriatarrek ez ezik, inguruko udalerrietakoek ere parte hartu dute, baita Donostiatik etorritako jendeak ere". Gauzak horrela, iragarri dute datozen urteetan eskaintza "erakargarriak" prestatzen jarraituko dutela, betiere unean-unean erabil ditzaketen baliabideak zeintzuk diren kontuan izanda.

Aurten, esaterako, bitan banatu behar izan dute Eguberrietako Haur Parkea, ekimen arrakastatsuen ohi dena. Michelingo kirol gune berria eraikitze obrak hasi dituztenez, bertako pilotalekua ezin izan dute haur eta nerabeak hartzeko erabili; Oriarte Landaberri institutuko patioan eta Loidibarren frontoian izan dira, hurrenez hurren. Bi astez aurrera eraman dute jarduera hori eta oro har ongi moldatu badira ere, erregistratu dituzte zenbait intzidentzia: "Oso haizetsuak izan ziren zenbait egun eta horietako batean barrualdea



Ezker-eskuin, Agustin Valdivia eta Txus Alonso. TXINTXARRI

babesteko jarri genituen lonak altxa zituen, ikastetxeko patioa ura sartu zen, argia joan zitzaigun arratsalde batean eta itxi egin behar izan genuen, ez zelako ezer ikusten... Eraikin hori udalarena ez izateak kudeaketa zaildu badu ere, programazioa gauzatu ahal izan dugu", adierazi du Alonsok. "Horrelako egunetan badirudi ez dela gauza handirik gertatzen baina estres askoko momentuak dira guretzat; bereziki nabarmendu nahi dut Txusen lana".

Eskertza txanda hori baliatu dute Eguberrietako ekimenetan

zehar lankidetzan aritu diren eragileek egindakoa aitortzeko. "Ttakun Kultur Elkarteari eta Megabari eskerrak eman nahi dizkiet, Mari Domingi eta Olentzerori nahiz Errege Magoei antolatutako ongietorriengatik. Jai giroko egun gozagarriak dira herritar gehienentzat baina horiek aurrera eramateko ezinbestekoa da horrelako elkarrekin kideen lana". Gogoratu du eguraldiagatik zenbait moldaketa egin behar izan zituztela: Mari Domingi eta Olentzeroren kasuan, bertan behera utzi zuten desfilea eta ikuskizuna Loidibarrenen



NEURE KABUZ
JULEN BASTERRA

Elurra

Elurra solidotu den ura da. Jariakorra eta mugikorra den urak fisikotasuna irabazten du. Eta metatu egiten da mendi gailurretan. Bizitzaren lorpenekin parekatzen dut nik elurra. Izan ere, lorpenak, elurra bezala, gailurretan metatzen dira, solidoak dira, pisutsuak, ikusgarriak, politak, jendeak miresten ditu, argitsuak dira, eguzkiaren distira igortzen dute...

Jakina den bezala, mendi gailurretan pilatzen da elurra, hara iristea kosta egiten zaigun gune altuetan. Izerdia bota ostean, *bidez bide luze ibiliz*, bertara heltzeko esfortzua eta denbora eman ostean iristen gara, azkenik, elurra egiten duen zonalde eder horietara. Hortaz, *igo gaitezen gure mendira* eta itxaron dezagun bertan elur malutak pilatzen direneko garai hori, zergatik ez? Eta behin paisaia zuritzean ukitu dezagun geure eskuekin elur preziatua, bizitzaren sari preziatua, nolatan ez dugu ba hori nahi izango?

Baina, *ikusi mendizaleak*, mendi tontor gainetik igo dituzuen *baso eta zelaia*k. Zeren, urtuko den elurrak bezala, guk ere *mendi tontor gainetik jaitsi beharko dugu*. Eta *ez negarrik, ez baita bide txarrik... beherantz, beherantz... doan elurra bezala... gu ere horrelakoak gara, maldan beherantzkoak*.

Zeren, ez da kezkarik, ezta larritasunik ere, berandu baino lehen, ahazturaren itsasoan amaitzea dagokio eta mundu guztiari. *Mendikate honi lotuta nire elurra zurea* den bezala, urtze hau ere biona izango da. Itzuleran baten moduan, ur bihurtuko gara eta urak bere bidea jarraitzearekin batera *orain itsasoa garela* esango diogu elkarri. Ala baliteke, bestela, ukazina den prozesu zikliko natural honen amaieran, *itsasoari begira emango dugula gure azken hatsa*.

Nolanahi ere, aurtengo urteari begira nire desiorik onenak helarazi nahi nizkizuke: urte elurtsua izan dadila zentzurik onenean. Eta zure mendian elurrik egiten ez badu ere, egon zaitez lasai, euria egingo duela nahiko ziurra baita. Eta txarrenean jarrita, aurtengoan sekulako lehortea espero baduzu, beti geratuko zaizkizu ur lurrunezko ametsak... Eutsi beraz gogor zure amets ederrenei, ikusgarria den guztia hor hasten baita: noizbait elur izango diren hodeietan.

egin; Errege Magoen harreraren egunean, berriz, Okendo atzealdean jaurti ohi dituzten etxafuegoak kutxetan gorde behar izan zituzten, hilaren 5a egun oso haizetsua izan zelako.

Valdiviak eta Alonsok nabarmendu dituzte kultur etxean

egindako bi ikuskizunak, burbuila erraldoiena eta Marsel magoarena: "200 ikus-entzule baino gehiago etorri ziren emanaldi horietako bakoitzera". Hilaren 4ko kontzertu gauak izandako oihartzuna ere gorai patu dute.

TXINTXARRIK KAZETARIA BEHAR DU

Ostiraletatik igandetara lan egiteko

• Kontuan izango ditugunak:

- Kazetaritza, Komunikazioa edo pareko ikasketak.
- Euskara eta gaztelera ahoz eta idatziz menperatzea (gutxienez C1 maila izatea).

- Multimedia kazetaritza: sare sozialak, webgunea, edizio programak...
- Argazkilaritza eta bideogintza ezagutzak izatea.
- Lasarteoriatarra izatea edo herria ezagutzea.

Curriculumak urtarilaren 26ra bitarte jasoko ditugu helbide elektroniko honetan:
txintxarri@ttakun.eus

txintxarri



Gizakien eta naturaren arteko harremana

Gotzon Huegun artista lasarteoriatarrek 'Sinkronia' erakusketa ondu eta Donostiako Cristina Enea fundazioaren egoitzan jarri du ikusgai, martxoaren 16ra arte. Hamazazpi mural, bost eskultura eta zenbait zirriborrok osatzen dute esposizio hori

Txintxarri

Zientziaren, naturaren eta gizatasunaren arteko tentsioak aztertu ditu Gotzon Huegun Burgos eskultore lasarteoriatarrek, *Sinkronia* izeneko erakusketan. "Lotura horien konplexutasuna islatzen duten forma eta ehundura organikoak" erabili ditu horretarako. Cristina Enea fundazioaren egoitzan (Mandasko Dukearen Pasealekua, 66) ikusgai jarri du esposizioa eta bertaratu nahi dutenek martxoaren 16ra arte izango dute (abenduaren 27an zabaldu zuen). Ordutegia 09:30etik 18:00etara artekoa da astegunetan; larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara; eta igandeetan, 10:00etatik 14:00etara.

Hiru aretotan banatu du erakusketa Huegunek eta hamazazpi mural, bost eskultura eta zenbait zirriborro ikusgai jarri ditu espazio horietan. "Gizakiaren eta naturaren arteko



'Sinkronia' erakusketakako lanetako bat. GOTZON HUEGUN

harremana berriz aztertzeraz gonbidatzen gaitu, gure ingurune naturalarekin oreka bat berrezartzeko eraldaketa sakon baten premia nabarmenduta", azaldu du egileak Cristina Enea fundazioaren webgunearantz

egindako adierazpenetan. Gauzak horrela, "esperientzia murgiltzaile bat" biziko dute esposizioaz gozatzera joaten diren ikusleek: "Zientziaren eta naturaren arteko norgehiagoka, ekosistemaren barruan dugun

tokiari buruzko gogoeta; eta sinkronia proposamenaren gailurra".

Huegunek erakutsi nahi du aipatutako alor horiek oso lotuta daudela, zientziak naturarekin zerikusirik ez duen pertzepzioari erronka botata. Norabide horretan, artistak iradokitzen du "ingurunearekin dugun harremana aldatzea" dela "mundu bidezkoago eta iraunkorrago bat" lortzeko bide bakarra, erakusketari izenburua eman dion "gizakiaren eta ingurune naturalaren arteko sinkronia" erdietsita. Hori horrela izanik, "ekintzarako deia" da lasarteoriatarren esposizioa, "munduan dugun zeregin birplanteatzeko" eta izaki bizidun guztiek "harmonian aurrera egin ahal izango duten etorkizunarekin konprometitzeko".

Dokumentalaren estreinaldia

Erakusketa jarri duen espazioan bertan estreinatuko dute artista lasarteoriatarren ibilbidea erreparatzen duen *Sinkronia. Artea eta natura* dokumentala, hilaren 24an, 17:00etan. Antolatzailak jakinarazi dute doakoa eta librea dela sarrera, areto horretako toki guztiak bete arte. Gorka Ipinazarrek eta esposizioaren egilearen alaba Haizea Huegunek egin dute ikus-entzuzkoak.

Aipatu dokumental horretan erakutsi dute zer-nolako eragi-

na duen naturak lasarteoriatarren sortze prozesuan. "Bere begirada artistikoaren bidez, Huegunek bere historia, arteari buruzko gogoetak eta gizakiaren eta ingurune naturalaren arteko harremanaren pertzepzioa partekatzen ditu", azaldu dute. "Ikus-entzuzko ibilbide horrek sorkuntza artistikoa esploratzera gonbidatzen gaitu, inguratzen gaituen munduarekiko sinkronia prozesu gisa".

Huegunek hogeita bost urte baino gehiago daramatza eskulturak egiten eta bere lanetako batzuk Lasarte-Orian bertan ikus daitezke, hala nola, Askatasunaren parkeko *Biharraren oroipena* edo Atsobakar auzoko parkean dagoen *Argizaiola* (berria, jatorrizkoa lapurtu egin baitzuten duela zenbait urte). Gaur egun Azkarate herrian (Nafarroa) bizi da eta bertan duen estudioan sortzen jarraitzen du. Lantokiaren ondoan esposizio areto bat atondu du bere sorkuntza lan nabarmenenak erakusteko. Euskal Herriko sortzaile ezagunenetako baten jarduna izan da lasarteoriatarren inspirazio iturri, Jorge Oteizarena.

HUEGUNEN IBILBIDEARI BURUZKO DOKUMENTALA ESTREINATUKO DUTE HILAREN 24AN

Bizipenak elkartrukatzeko aukera izango dute aurten ere

Hilaren 23an aurkeztuko dute TrukeLandia egitasmoa, kultur etxeko auditorioan, 17:30etik aurrera

Txintxarri

Ttakun Kultur Elkartek eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak elkarlanean aurrera eramaten duten GurasoLandia egitasmoa GurasoLandiaren baitan dago, eta, azken hori, GurasoLeku izeneko ekimen baten adarretako bat da, GurasoLagun eta GurasoTegirekin batera. Urte batzuk daramatza martxan xede honekin: herriko haurrak elebidun oso bihurtzea, euskararen transmisioa familietan bultzatzearen bidez.

Egitasmoaren izenak berak dioen bezala, bizipenak trukatzeko da helburua, hilabete behin.

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkartek aurrera eramaten dute, elkarlanean. TrukeLandia egitasmoa GurasoLandiaren baitan dago, eta, azken hori, GurasoLeku izeneko ekimen baten adarretako bat da, GurasoLagun eta GurasoTegirekin batera. Urte batzuk daramatza martxan xede honekin: herriko haurrak elebidun oso bihurtzea, euskararen transmisioa familietan bultzatzearen bidez.

Lehen esan bezala aurten GurasoLandian ari direnek berta-



TrukeLandiaren iazko aurkezpen ekitaldia. TXINTXARRI

ratu ahalko dute TrukeLandiaren aurkezpena. Ekitaldirako gonbidapenak GurasoLandiako antolatzaileei eskatu ahalko dizkiete familiek, eurekin komunikatzeko erabiltzen dituzten ohiko bideetatik.

Bestalde, euskara elkarteko nahiz erakundeko ordezkariak jakinarazi dute hilabetea amaitu arte izango dutela Solaskide egitasmoan izena eman nahi duten herritarrek. Oraingo honetan, *Eta euskaraz egiten ba-*

dugu? leloa aukeratu dute inskripzio kanpaina sustatzeko. Aipatu programa horrek elkartzen ditu euskara hitz egiteko ohitura duten eta usadioa ez duten pertsonak, topaketak hizkuntza horretan egin eta tarte atseginak igaro ditzaten: egunero jarduna erreparatu, jendea ezagutu, kafe baten bueltan hitz egin, eta abar.

Solaskiden parte hartu nahi duten lasarteoriatarrek izena emateko eskuorriak hartu ahalko dituzte Ttakun KEn, udaltxean, Udal Euskaltegian eta Muntteri-AEK euskaltegian. Horrez gain, informazio gehiago eskuratu ahalko dute 695 78 53 89 telefono zenbakian edota *kultura@ttakun.eus* helbide elektronikoan. Azken eguna, esan bezala, hilaren 31 izango da, ostirala.



Ezker-eskuin: Ainara Elicechea eta Jose Luis Navarro. TXINTXARRI

Udalerriaren historia idazten jarraitzen du

Miguel de Okendok duela 500 urte pasatxo idatzitako bi istorio liburu batean bildu ditu Jose Luis Navarro historialariak. Gaur (hilak 17) aurkeztuko du 'Dos libros lasartearras del siglo XVII' lana, kultur etxeko hitzaldi aretoan, 19:00etan

Txintxarri

Egindakoa aurkeztuko duen toki berean erakutsi du Jose Luis Navarrok *Dos libros lasartearras del siglo XVII* liburua, Lasarterekin lotura estua izan zuen Miguel de Okendo itsasgizon eta idazleak mende horretan idatzitako bi istorio batzen dituen. Udaleko Kultura zinegotzi Ainara Elicechea izan du lagun

agerraldian eta azken horrek hartu du hitza, prentsaurrekoari ekiteko: "Gure udalerriaren historiaren parte dira Jose Luisen lan guztiak, baita azken hau ere; memoria historikoa eta gure herria alor horretatik ere erakitzea babesten jarraituko dugu". Aurreratu du ostiraleko ekitaldira bertaratzen direnek aukera izango dutela ale bana etxera

eramateko; hortik aurrera, udalxera joan beharko dute eskatzera interesa dutenek, edo Udal Liburutegian idazleak utziko dituen aleak kontsultatu.

Donostiara izanagatik, Lasarterekin lotura estua izan zuen Miguel de Okendok. Navarrok gogoratu duenez, Dorre jauregian bizi izan zen eta bere azken urteak herrian eman zituen, itsas-

gizona izatetik erretiratu zenean. "1663an hondamendi bat pairatu zuen Cadizeko badian; berak gidatzen zuen Kantauriko Eskadroko ontzi gehienak hondoratu eta tripulante asko hil egin ziren. Atsekabetuta, Espainiako orduko errege Felipe IV.ari erretiroa hartzea eskatu zion". Bere bizitokira itzuli beharrean Lasarten hartu zuen ostatu, Donostia baino "lasaiagoa eta bakesuagoa" zelakoan. Teresa de Millan emaztearekin batera bizi izan zen han eta familia eta sendiaren beraren negozioak artatzeaz gain, irakurri eta idatzi egin zuen, Lasarten bertan hil eta lurperatu zuten; horren aurretik, Brigitarren komentua sortu zuen emaztearekin batera.

Aita eta Santa Brigida

Lehenengoa bere aitari buruz idatzi zuen, Antonio de Okendori buruz, 1666an. "30 bat orri zituen eta aitaren gerrako balentriei buruzko iruzkinekin ondu zuen". Bigarrenak, berriz, Suediako Santa Brigida izan zuen protagonista. "Okendok Brigidaren bizitzari buruz idatzi zuen: idazle, filosofo, teologo, politikari eta Santísimo Salvador ordena erlijiosoaren sortzailea izan zen, besteak beste". Horrez gain, kontakizuneko protagonistak Jesukristorekin, Mariarekin eta deabruarekin berarekin izandako hizketaldietatik eratorritako profeziak jaso zituen.

Ohartarazpen bat egin du Navarrok: "Liburuak ez dira irakurtzeko errazak, ez dira hasieratik irakurlela gatibatu eta liburua ez eskatzera ia behartu egiten duten eleberriak, baizik eta ahalegina eskatzen du horietan kontaktzen denaren garaira bidaiatu eta horretara egokitze-

Navarroren zazpi lanak

- **2006** *Historia de la asociación católica de padres de familia de Lasarte-Oria.*
- **2007.** *Retazos I: la vida de Lasarte-Oria del siglo XX a través de la prensa.*
- **2010** *Relato breve de Lasarte.*
- **2016** *Retazos II: aproximación a la vida de Lasarte-Oria hasta el siglo XX.*
- **2018** *Retazos III: aproximación a un largo y penoso camino a la independencia.*
- **2021** *Retazos IV: aproximación a la vida de Lasarte-Oria hasta el siglo XX (2).*
- **2021** *Dos libros lasartearras del siglo XVII* (hitzaurrea idatzi du Jose Luis Navarrok).

ko". Hori egin beharko dute, batez ere, Santa Brigidari buruzko lanarekin: "Kontaktzen dena duela 600 urte baino gehiago gertatu zen eta kutsu oso erlijioso du, gaur egun gero eta fede gutxiago dagoen garaian". Hala, egilearen idazkera, sintaxia eta ortografia errespetatu ditu historialariak. "Gramatika guk ulertzeko dugun moduarekin ez du zerikusirik".

Miguel de Okendoren liburuen berri duela bospasei urte izan zuen Navarrok eta orduan hasi zen lanean, "garrantzitsua" iruditu zitzaiolako lan horiek herriarren eskura jartzea: "Inork ez ditu ezagutzen".

Exiquio Perez Garcia hil da

Urte berriko aurreneko berri tristeetako bat izan da Exiquio Perez herritarren heriotza, 81 urte zituela. Urte luzez jardun zen Biyak Bat elkarte egoitzako zuzendaritzan, ahal izan zuen guztian laguntzen. Horrez gain, oso ezagun eta maitatua egin zen udalerriko elkarte eta eragileen artean, bideokamera eskuan, zientoka ekitaldi grabatu zituelako.



TXINTXARRI

Donostiako Kaleko Afari solidarioekin lankidetzan ariko dira

Lasarte-Oriako Elkartasun Sarea martxan jarri dutela iragarri dute. Donostiako Kaleko Afari Solidarioekin lankidetzan ariko dira eta hilabete bakoitzeko azken astearteetan elkartuko dira otorduak prestatzeko, hiri horretan ehun pertsona baino gehiagok jan dezaten. "Guztia modu autogestionatuan ari gara antolatzen, eta zuk ere

egin dezakezu ekarpena, hala afarien prestaketara batuta, nola behar ditugun osagaiak emanda. Hain zuzen ere, larunbatean, hilaren 18an Okendo Plazan izango gara 11:00tatik 13:30era informazioa banatzen eta behar diren lehengaiak jasotzen. Oraingoz, lekaleak, arroza eta olioak behar ditugu. Baita plastikozko poltsak, eta fruta kaxak ere. Bestelako ekarpenak ere ongietorriak izango dira", ohartarazi dute. Neguko arropa, manta eta tapakiak ere bilduko dituzte.

Irekita daude bost errefus ontzitatik lau

Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak salatu du udalak martxoan ezarritako sistema ez dela funtzionatzen ari: "Udalerrian giltzatutako edukiontzi grisetan oinarritutako hondakin bilketa dagoela esatea ez da egia". Hori "lehenbailen" ebaluatzea galdegin diote alkateari

Txintxarri

Edukiontziz edukiontzi ibili dira Lasarte-Orian Aire Garbia plataformako kideak, errefusa botatzeko ontzietatik zabalik zenbat dauden egiaztatzen. "Zehatz-mehatz, bostetik lau, egiaztatu ahal izan dugunaren arabera. Bagenuen gehienak irekita zeuden susmoa, horregatik, guztira 35 bisitatu genituen eta hona hemen datuak: zazpi topatu genituen itxita". Nabarmendu dute "adierazgarri baino adierazgarriagoa" dela aztertu duten lagina, udalerrian gisa horretako 70 ontzi daudelako.

Ildo horretatik, Aire Garbia-koek salatu dute udalak joan den urteko martxoan indarrean jarri zuen sistema ez dela funtzionatzen ari. "Bestela esanda: Lasarte-Orian giltzatutako ontzi grisetan oinarritutako bilketa dagoela esatea ez da egia". Gogoratu dute Agustin Valdiviaki iragarri zuela irailean ebaluatuko zutela funtzionamendua, baina "hiru hilabete luze geroago", oraindik ez dagoela agindutako azterketa horren zantzurik. Horregatik, ebaluazio hori "lehenbailen" egitea galdetu diote udal gobernuaren ordezkariari, "zuzendu beharrekoa ere ahalik eta azkarren bideratu ahal izateko".



Ola kaleko errefus edukiontzietako bat irekita dago. TXINTXARRI

"Hondakin Lege berriaren anparoa, Lasarte-Oriako Udalak %30 garestitu zuen hondakinen tasa iaz, eta %50 igoko du ordaindu beharrekoa aurten", gogoratu dute plataformako kideak. "Bada, zergak garestitzea ahalbidetzen duen lege horrek berak etxeko zaborraren gaikako bilketan minimo batzuk ere exijitzen ditu; udalak ezin ditu irizpide horiek bete erakundeari berari komeni zaion neurrian soilik".

Joan den martxoan ekin zion Lasarte-Oriako Udalak *Ez utzi hondakinak lurra* kanpainari, bi helbururekin: "Birziklatze tasa hobetzea eta berreskuratu ezin daitekeen errefus kopurua gutxitzea". Udal ordezkariak orduan azaldu zuten, hori da erakundearentzat "ingurumeneko nahiz kostu ekonomiko handiena duen frakzioa, tona bakoitzeko". Edukiontzi grisak irekitzeko bi aukera eman zituzten, txartela edo aplikazioa.

Talde nazi baten propaganda zabaldu dute udalerrian

Devenir Europeo izeneko elkarte baten lelo eta webgunea duten pegatinak itsatsi dituzte herriko zenbait gunetan

Txintxarri

Sare Antifaxista eragileak bere sare sozialetan salatu du udalerrian barrena jarri dutela Devenir Europeo elkarte naziaren aldeko propaganda; "zabor nazi-faxista" gisa kalifikatu du.

Zenbait kaletako seinale, zutabe eta hormetan pegatinak itsatsi dituzte. *La vida es lucha, la lucha es vida* leloa eta eragile ultraeskuindar horren webgunearen helbidea azaltzen dira itsaski horietan.



Herrian itsatsitako pegatina bat. TXINTXARRI



Sole Agirre Garro aktibista, joan den abenduko solasaldian. TXINTXARRI

Pentsiodunek aurkeztutako Herri Ekimen Legegilea hizpide

Borobilean Elkarteak hilaren 23an aurrera eramango du hurrengo saioa, Oriarte Landaberrin, 19:00etan

Txintxarri

Pentsioei buruz hitz egiten agurtu zuten 2024a Borobilean Elkarteak kideek eta gai berari helduko diote urte berriko aurreneko solasaldian, zehazki, Euskal Herriko Pentsionisten Mugimenduak landu eta Eusko Legebiltzarrean aurkeztu duen Herri Ekimen Legegileari: horren helburua da herritar guztien pentsio duinak bermatzea. Horretarako, eskatu dute 60 urtetik gorako pertsonak hileroko jasotzen dutena Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin (iaz 1.134 eurokoa izan zen) parekatzea.

Sole Agirre Garro aktibistak emango ditu gai horri buruzko azalpenak.

Ekimen hori dagokion erakundeak aurkeztuta, atxikimenduak biltzeari ekin diote. Eragile horren ordezkari Karlos Etxeberriak abenduko hitzaldian zehaztu zuenez, 10.000 sinadura behar dituzte gutxienez eta horiek jasotzeko udalerriz udalerriz bilketa ekimenak antolatzen ari dira. Hilaren 23ko saioa baliatuko dute horri buruz hitz egin eta Lasarte-Orian jardura hori dinamizatuko duen talde txiki bat osatzeko.



TXINTXARRI

Japonian bira egingo du Rukulak

Apirilaren 11tik 20ra sei kontzertu emango ditu Oihan Agirretxe herritarra kide duen Rukula taldeak Asiako herrialde garrantzitsuenetako batean, Japonian. Kumegawa, Nagoya, Mishima, Shibuya, Utsunomiya eta Chofu hiri edota auzoetako aretoetan ariko da. Bira horri buruzko informazio gehiago Rukularen sare sozialetan topa dezakete herritarrek.



Hilaren 28an jarriko dute abian Ekintzailertza Kooperatiboko Eskolaren bederatzigarren aldia. KOOPFABRIKA

Martxan da aurtengo KoopFabrikan parte hartzeko izen ematea

Olatukoop, GEZKI eta Lankik sustatutako Ekintzailertza Kooperatiboko Eskolak ikasturte berri bati ekingo dio hilabete bukaeran Donostian. Bestelako ekonomia eredu batean ekin edo jardun nahi dutenei zabalik dago doako formakuntza

Txintxarri

Askotariko proiektu profesionalak eta ekimen sozioekonomikoak daude, baina denek ez dute izaera bera. Etekinak eta hazkunde xede dituztenen aurrean, izaera sozialeko ekonomiak lehenetsi egiten du kolektiboaren bizi baldintzak hobetzea eta komunitatearen premiak asebetzea. Bide horretatik joan nahi dutenak hezi eta laguntzeko KoopFabrikak bere Ekintzailertza Kooperatiboko Eskola martxan jarriko du bederatzigarrenez, hilaren 28an. Proiektu ekonomiko kooperatibo eta komunitario bat dutenek *Koopfabrika.eus* webgunearen bidez izena eman dezakete doako formakuntza honetan.

Bost heziketa saio aurrera eramango dituzte Donostiako Egia auzoko Teila Fabriketan, astearteetan, 16:00etatik 19:00eta-

ra. Oinarrizko ezagutzak jasota, martxoaren 11n eta 25ean, bi bidelaguntza kolektibo burutuko dituzte, horietan, KoopFabrikako bidelagun taldeko kideek proiektuetan hurrengo urratsak egiten jarraitzeko laguntza eskainiko diete ekintzaileei. Hortaz, egitasmoaren filosofian jarduteko ezagutzak eskuratu eta bai elkarrekin bai elkarrengandik ikasteko gunea ematen die partaideei.

Formakuntzan edonork parte hartzeko aukera badu ere, bereziki bideratua dago proiektu kolektibo bat gauzatu nahi duten norbanako zein taldeei, beraien jarduerak hobetu edo profesionalizatu asmo duten elkarteei, kooperatiba bilakatzeko bidean jarri nahi duten enpresei edota ekonomia sozial eraldatzailean kokatu nahi duten erakunde publikoetako kideei.

2017 urtean eskaintza plaza-ratu zutenetik, 725 pertsonak parte hartu dute eskolan eta 75 bat proiektu jarri dira abian, horietako hamasei Beterrri-Buruntza eskualdean. Prozesuan 150 erakundetik gora saretu dira eta beste horrenbeste proiektu bidelagundu dituzte. Horrez gain, garatu duten metodologian oinarritutako beste hainbat proiektu jarri dira martxan Euskal Herriko hamaika txokotan.

Inguuruaren zerbitzura jardun Antolatzaileen esanetan, ekin-tzailertza soziala euskal gizarteak

ZAZPI URTEOTAN 75 PROIEKTU SORTZEN LAGUNDU DU, HORIETAKO HAMASEI ESKUALDEAN

Eskolaren edukiak

- **Ekonomia sozial eraldatzailea:** ekonomia eraldatzaileetan eta kooperatibismoan sakondu, eta lanaren burujabetzaren eta ekintzailertza sozial kooperatiboaren marko teorikoa ezagutarazi.
- **Ekonomia feminista eta antiarrazista:** generoak eta arrazak duten dimentsio sozioekonomikoan sakontzen dute. Besteak beste, emakumeak, gizonak eta pertsona ez binarioak ekonomian kokatu, bertan nola eraikitzen diren ikusi, eta bizitza prekarioetatik gozagarrietara salto egiteko gakoak azaldu.
- **Lurraldea eta ekosistema kooperatiboak:** lurraldea, tokiko garapena, iraunkortasuna, kohesio soziala... azaldu eta ekosistema kooperatiboak zer diren eta beraien eraikuntzak duen garrantzia aztertu.
- **Komunitatea, marketin komunitarioa eta komunikazioa.** Proiektuek tokiko garapen komunitarioa sustatu behar dutenez, lekuan lekuko testuinguru sozial, ekonomiko eta politikoak deskribatzen dituzte, proiektuen komunitateak definitu eta eraikitzeko, eta haietan oinarritutako marketin eta komunikazio planak diseinatuzko.
- **Pertsonak eta lantaldea proiektu gozagarrietan:** Talde izaerari arreta eta hori egiteko garrantzitsuak diren gaiak edota esparruak lantzen dituzte. Proiektua osatzen duten pertsonen arteko harremanaz osatzen da taldea eta talde osasunak eragin zuzena du proiektuaren garapenean.
- **Lan arloa eta kudeaketarako gakoak.** Batetik, kooperatiben eraketarako hasierako urratsak, kooperatiben gizarte segurtasuna eta nominak, zerga sistema... lanketa, eta bestetik, proiektu eraldatzaileen barruan, kudeaketa ikuspegitik baliagarriak izan daitezkeen hainbat tresnen aurkezpena.
- **Bideragarritasun ekonomikoa eta finantzazioa.** Proiektu edo enpresa plana osatzeko beharrezko elementua den bideragarritasun ekonomikoko kontzeptuen lanketa praktikoa, eta horren barruan, finantzazio modu etiko eta kolektiboena.

berezko dituen bi iturritatik edaten duen praktika konkretua da, batetik, kooperatigintzatik edo ekonomia sozialetik; eta bestetik, garapen komunitariotik edo herrigintzatik. KoopFabrika, berriz, Beterrri-Buruntzaldeko Kooperatzen eta Debagoienako Berrekin-Berregin egitasmoen batura da, haietan jardun ziren eragileak barneratu eta beste batzuk gehituta. 2017tik aurrera daramaten heziketa programaren sustatzaileak dira Olatukoop (Euskal Herriko Ekonomia Sozial Eraldatzailean jarduten duten kooperatiba, elkarte eta erakundearen sarea), GEZKI (EHUko Gizarte Ekonomia Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua) eta Lanki (Mondragon Unibertsitateko Kooperatibismoaren Ikertegia), eta hainbat udalen eta garapen agentziaren laguntza jaso dute, Beterrri-Buruntzako udalena, kasu.

Hastear den programa honetara arte, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babes ekonomikoa ere izan dute, baina "Euskal

Herriko herritarren zerbitzura egongo den ekonomia sustatzeko ezinbesteko tresna" dela sinetsita, hura gabe ere aurrera egitea erabaki dute, euren interkooperazio eta baliabideei esker gauzatu. Izan ere, datozen urteetan helduko diren erronka sozioekonomikoen aurrean, ekonomia sozialak eta ekintzailertza kooperatiboak erantzun "erresiliente, iraunkor eta bizigarriak" eskaintzen dituela ikusi baitute urteotan.

Zazpi urteotan egindako bidean ekintzailertza kooperatiboko ziklo eta metodologia bat sortu dute: formakuntza saioak, tresna, adierazle sistema eta bidelagun gida bat. Ikasketa prozesua, KoopFabrika sekuentziaren lehen fasea da, "oinarri-oinarrizkoa zein ezinbestekoa". Trebakuntza jaso, tresnak aurkeztu eta proiektu-ideiarako lehen gakoak jasotzeko abagunea izateaz gain, askotariko jardueren bidez saretzea ere sustatzen dute edizio bereko nahiz desberdinetako ekintzaileen artean.

Maddi Zaldua

Ibrahima Balde ginearrak bere miñanaren (anaia txikiaren) bila Afrikatik Europara egindako bidea oholtzara ekarri du Ander Lipus (Markina-Xemein, 1971) aktore eta antzerki zuzendari bizkaitarrak. Ibrahimak berak ahoz kontatutakoa, *Miñan* izeneko liburuan eskuz kontatu zuen lehenik Amets Arzallus Antia idazleak, eta kontakizun hori izenburu bereko antzerki obra bilakatu du, gerora, Lipusek. 2024. urteko urriaren 25ean erakutsi zuen estreinakoz Bilboko Arriaga antzokian, eta, orduz geroztik, hango eta hemengo eszenarioetan dabilta, antzokiak bete eta bete.

Hilaren 25ean, 20:00etan, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxean taularatuko dute (sarrerak eskuragarri dauDe), eta hitzordu hori aitzakiatzat hartuta, zuzendariarekin hitz egin du TXINTXARRI aldizkariak.

Noiz eta nola sortu zitzaizun 'Miñan' oholzaratzeko nahia? Pentsatu dut, liburua irakurri osteak sortu ahal izan zizula antzerki obra sortzeko nahia. Hala izan al da?

Ez zen horrela izan. Bost urte dira, gutxi gorabehera, *Miñan* liburua plazaratu zela, eta nik neuk pandemia garaian irakurri nuen. Hori hala izanagatik, ez zegoen nire asmoetan antzerkiera eramatea, batez ere, ez dudalako inoiz egin besteen testuetan oinarritutako halako egokitzapenik. Egia da, Artedrama konpainiak migrazioaren gaia landu duela aurretik ere oholtzan, *Etxekoak* eta *Atzerrian lurra garratz* obrak kasu; badugu gaiarekiko halako sentsibilitatea.

Kontua da Timberlake Wertenbaker [dramaturgoa, *Miñan* antzeulanaren testua egokitu du] ezagutu nuela, eta elkarrekin zerbait egiteko asmoa agertu genuen; zerbait, baina ez *Miñan*. Liburuaren ingeleserako itzulpena berak egin zuen [Little brother], eta aipatu zidan asmoa zutela Londresen antzerkiera eramateko. Antzerki idazlea da bera, hori du ogibide, eta hori esan zidanean, aipatu nion pena zela euskaraz sortutako lana, oholtzara, lehenengoz ere, euskaraz ez eramatea. Azkenean, Londresen estreinatzekeo ideia hori atzeratu egin zen, eta, hori hala izanik, aipatu nion ezagutzen nituela aktore beltz euskaldunak, eta agian posible izango zela bide hori urratzea hemen.



Ander Lipus da *Miñan* antzeulanaren zuzendaria. Horrez gain, aktore lanak ere egiten ditu, oholtza gainea. AINHOA RESANO

"Pairatzen duten arrazakeriaz jabetzeko aukera ematen du kontakizunak"

ANDER LIPUS 'MIÑAN' ANTZEULANAREN ZUZENDARIA

Hilaren 25ean erakutsiko du 'Miñan' antzezlana, Manuel Lekuona Kultur Etxean, Ander Lipus antzerki zuzendari eta aktoreak. Herritarrak bertaratzera gonbidatu ditu

Planteamendu horrekin Amets Arzallusengana [*Miñan* liburua idazlea] joan ginen. Asko kosta zitzaion baiezkoa ematea, batetik, lehendik ere bazituelako beste antzerki talde batzuen aldetik lana antzerkiratzeko eskaerak, eta, bestetik, berriz, Ibrahimaren [kontakizuneko protagonistak, lekukoak] bizitza komertzializatuko ote zen beldur zelako. Azkenean, bai batak eta baita besteak ere baiezkoa eman ziguten, eta sorkuntza lanari ekin genion. Nik ekipoa bildu nuen, eszenografoa, musika eta argien arduraduna, jantzien egilea eta abar; Artedramako lan-kideekin hasi ginen lanean. Zorionez, Arzallus bera ere oso inplikatu egon da, eta bera on-

doan izatea niretzat garrantzitsua izan da, izan ere, nire aurreko lanak errealitate batetik abiatu arren, fikzionatuak izan dira. *Miñanen* kasuan, ordea, fikzionarako ez zegoen tarterik. Benetako istorio bat da, eta liburua kontakizun moduan antzerkiratzea zen helburua. Hori bai, erabaki behar izan genuen kontakizunetik zein pasarte sartu, eta zein kanpoan utzi, antzezlana bestela luzeegia zatekeelako. Lan hori egin dugu Wertenbakerrek eta biok, baina, Arzallusek entseguak eta ikusten zituen, eta bere iritziak ematen zizkigun; nolabait esatearren, bere onarpenarekin egin dugu aurrera. Hori izan da egin dugun bidea, hasieratik.

Amets Arzallusek, liburua, Ibrahima Baldek kontatutakoa jaso du; elkarlanean osatu dute lan hori. Aipatu duzunez, antzerkia sortzeko ere izan duzue Ametsekin kontakturik. Eta Ibrahimarekin? Nolako izan da erlazio hori?

Bai, batez ere Ametsekin aritu gara; aurretik esan bezala, sorkuntza prozesua jarraitu du. Ibrahimak, aldiz, beste distantzia batetik eraman du hau guztia. Ezagutu dugu bera; Madrilen egon ginenean bera ezagutzeko parada izan genuen. Antzeulanaren estreinaldi egunean ikusi zuen berak; Bilboko Arriaga Antzokira etorri zen, baina obraren azken 10 minutuak baino ez zituen ikusi, hain zuzen ere, gogorregia baitzaio

"ELKARREKIN ZERBAIT EGITEKO ASMOA AGERTU GENUEN; ZERBAIT, BAINA EZ 'MIÑAN'"

"AMETS [ARZALLUS] OSO INPLIKATUA EGON DA SORKUNTZA PROZESU OSOAN"

berak bizitako hori guztia ikustea.

Eta zer jaso duzue beraiengandik? Esan dudan gisan, Amets oso inplikatu egon da sorkuntza prozesu osoan. Testuarekiko ere edozein ñabardura nahi izan du ukitu, eta, uste dut emaitzarekin oso pozik dagoela. Eta Ibrahima baita ere; oso hunkituta dago. Biek, Ibrahimaren historia kontatu eta ezagutarazteko ariketa egin dute, eta hori ez da erraza, baina kontziente dira, kontakizun horrek beste mundu bat zabalitzen duela. Gurekin, gure ondoan bizi dira, kalean ikusten ditugu eta kontakizun horrek zabalitzen dio euskal publikoari horiek guztiek pairatzen duten arrazakeriaz jabetzeko aukera bat. Biek ala biek badakite beharrezkoa dela jendea hunkitzea, beste ikuspegi bat izan dezan.

Antzezlana zurrunki lotzen al zaio jatorrizko idatzizko lanari, edo badu ezberdintasunik?

Liburuan Ibrahimaren odisea amaitzen da salvamento maritimokoak iritsi eta salbatzen dutenean, mediterraneoan, itsasoan itota amai ez dezan. Baina, antzezlanean badago, liburua kontatzen ez den beste odisea bat, eta uste dut, lanak ekarpen hori ere egiten diola istorioari. Niretzat Ibrahimaren odisea amaitzen da hamar urteren ondoren, bere ama eta bi arreba bisitatzea itzultzen denean. Hori antzerkiak erakusten du, eta beste puntu bat erasten dio kontakizunari. Hori da ezberdintasunik potoloena-edo, nolabait esatearren. Gainerakoan, testuarekiko oso fidelak izan gara, baita elkarriketekiko eta istorioarekiko ere. Niretzat liburuak duen xarma da, Ametsek Ibrahimaren bizipenak kontatzeko moduan izan duen *aziertoa*; nola kontatzen duen protagonistak

bizitakoa; oso ondo egin du hori; ikusi besterik ez dago liburuak euskal gizartean izan duen harrrera. Ametsek Ibrahimaren historia liburura nola eraman duen, modu berean guk antzerkera eramatea izan da erronka. Hitzek pisu handia dute idazlearen testu literarioan, eta antzerkian ere, baina aktore nagusiaren gorputz eta ahotsak, eta pertsonaiek zein lekuek, beste modu batean gorpuzten dute kontaktuzuna. Erronka ez zen erraza, baina, zorionez, uste dut lortu dugula. 11.000 pertsonak ikusi dute *Miñan*, eta asko eta asko oso hunkituta atera dira antzokieta. Pozik gaudela esan dezakegu. **Antzerkiak istorioa beste modu batera gorpuzten duela aipatu duzu. Horrek laguntzen dio ikus-entzuleari liburuak sortzen duen norberaren iruditeria imajinario hori errealago bilakatzen, ezta?**

Bai. Sambou Diaby da Ibrahim hezurmamitzen duen antzezlea. Liburua irakurtzen dugunean, protagonista gure imajinarioan dago, baina, antzerkiak hori guztia gorpuzten du. Badira zenbait pasarte, adibidez, oilategian dagoenean jasaten dituen torturak, edo anaia galtzen duen unea ikusteak, besteak beste, eragiten dutenak hunkidura; bere anaia bilatzeko zer-nolako borroka egiten duen ikustea... Aita galtzen duen momentua, edota txikia zela ama gaixorik jarri eta berak eta anaiak medikura eramaten duteneko bizipenen kontakizuna ere... Hori

"LIBURUAK OIHARTZUN HANDIA IZAN DU; ANTZERKIAREKIN ERE GAUZA BERA GERTATZEN ARI DA"

guk ekarri dugu, talde lan baten ondorioz egindako apustua izan da. Uste dut lortzen dugula liburuo pasarteak transmititzea, eta, batez ere Ibrahimaren bidaia gogor hori modu poetiko batean helaraztea publikoari.

Euskal jatorria duen Timberlake Wertebaker dramaturgoa arduratu da testua egokitzeaz. Nolako elkarlana izan duzu berarekin? Euskadi irratian egin zioten elkarrizketa batean entzun nion esaten, besteak beste, bere Londresko bizitza eta Euskal Herrikoa lotzea ahalbidetu diola 'Miñan'-ek.

Egunotan hitz egin dut azkenekoz berarekin. Hemendik gutxira, maiatzaren 15ean Londresen estreinatuko dute ingelesezko bertsoia, *Little brother*, eta horren harira galdetu diot ea zer moduz doan. Pozik dago, baina han erakitzeke eta funtzionatzeko beste modu batzuk dituzte. Bost aktoreekin oholtzaratuko dute; pozik dago, bai.

Miñan antzezlana sortzeko berarekin bi urtez aritu naiz lanean, eta, uste dut oso lan fina egin duela. Saran (Lapurdi hegoaldeko udalerrria) igarotzen du uda sasoa, eta, orduan, Amets ere

"JASO DEZAKEGUN OPARIRIK EDERRENA ANTZOKIAK BETETA IKUSTEA DA; EZ DA OHIKOA IZATEN"

ondo ezagutzen du. Gauzak horrela, elkarrekiko izan duten konplizitate horrekin, eta hiruon artean osatu dugun dramaturgiarekin oso pozik egoteko moduan gaudela esango nuke.

Hizkuntzari dagokionez ere, berarentzat ez zen lan erraza. Euskara menderatzen du, baina, iruditzen zait errealitate hau guztia antzerkera ekartzeko izugarritzko lana egin duela, eta hori hala izanik, ni oso eskertua nago berarekin; hor ikusten da zer-nolako profesionala den, eta antzerkiarekiko zenbaterainoko jakitate eta sentsibilitate ederra duen. Emakume ikuspegitik ere kontakizunekozenbait momenturieman dien norabidea oso garrantzitsua izan da, hala nola, Ibrahimak amarekin duen harremana agertzekoan, edota basoan galduta dagoela emakume bat gerturatzen zaionean; badaude une batzuk kontu handiarekin idatzi dituenak. Oso ondo jakin du istorioaren muina antzerkera ekartzen, eta hori guztia esanda, ni oso pozik nago.

Spoiler handiegirik egin gabe, zer topatuko dute Lasarte-Oriako Manuel Lekuonara bertaratzen diren ikusleek?

Hasteko, lau aktore dena ematen. Uste dut miragarria dela Ibrahim Balde hezurmamitzen duen Sambou Diaby oholtza gainean ikustea; sekulako lana egiten du. Aktore taldetik ni naiz beteranona, ez dut esango zaharrena [barre egin du] eta 21 pertsonaia egiten ditut. Koro lana, hau da, Eihara Irazustak, Mikel Kayek eta nik neuk egiten duguna ere oso-osoa garrantzitsua da, eta agertokian, beteranoaz gain beste hiru gazte horiek ikustea gauza ederra da. Ikaragarritzko lana egiten ari dira.

Eta zuek, zer jaso nahi zenukete bertaratuko direnengandik?

Oparirik ederrena antzokiak beteta ikustea da; ez da ohikoa izaten. Teatroak badauka halako listoi bat, batzuetan pasatzea lortzen ez duguna, eta, iruditzen zait *Miñan*ekin eskuratu dugula hori. Antzerkirako espazioak gainezka ikustea gauza ederra da, asko motibatzen gaitu. Hau da gure ogibidea, eta publikoa hor egotea oso garrantzitsua da. Hori esanda, aprobetxatu nahi nuke jendea gonbidatzeko Lasarte-Oriako emanaldira etortzera. Nahi nuke, orain arte obra erakutsi dugun beste herrietan izan dugun harrera izatea, eta, horri, gainera, jendearen txalo zaparrada eder bat jasotzea gehitzen badiogu, zer gehiago nahi dugu?

Dagoeneko pasa dira hilabete batzuk estreinakoz 'Miñan' erakutsi zenu-tenetik (2024ko urriaren 25ean erakutsi zuten lehenengoz, Bilboko Arriaga antzokian). Bide oparoa egiten ari dela ukazina da, hango eta hemengo oholtzetan ibili zarete eta erakutsiko duzue oraindik ere beste hainbatetan. Nolako bidea izaten ari da?

45 emanaldi eginak ditugu. Asko dira; kideei esaten diet: 'hau gutxitan gertatzen den fenomeno bat da'. *Miñan* liburuak oihartzun handia izan du, eta zorionez, antzerkiarekin ere gauza bera gertatzen ari da. Hori gozatzen jakin behar dugu, eta antzerkia ikustera datozenei, bada, daukagun guztia eman eta Ibrahimaren istorio hori transmititu. Sambouk, Eiharak eta Mikelek ez dute kontaktzen den errealtaterik bizi izan, baina horietako batzuen gurasoek, bai, Sambouren aitak, esaterako; bada-kite zeinen garrantzitsua den historia hau kontatzea.

Zenbakiak ere egin ditugu, eta dagoeneko 11.000 pertsonak ikusi dute *Miñan*. Zenbaki oso po-



ARTEDRAMA

Fitxa teknikoa

Egileak

- Ibrahim Balde.
- Amets Arzallus.

Egokitzapena

- Timberlake Wertebaker

Zuzendaria

- Ander Lipus

Zuzendari laguntzailea eta koreografoa

- Philippe Ducou

Aktore zuzendaria

- Manez Fuchs

Aktoreak

- Ander Lipus
- Sambou Diaby
- Eihara Irazusta
- Mikel Kaye

Teaser-a:



Ibrahimak bizitakoak gorpuzten ditu, eszenarioan, Sambou Diaby aktoreak. AINHOA RESANO

litak dira, baina 45 emanaldi horien guztien atzean, etengabeko lana dago. Horri dagokionez, uste dut ez garela erlaxatu behar, eta lanean jarraitu behar dugula lehen eguna balitz bezala. Antzerkian hori oso garrantzitsua da; teatroaren xarma edo gauzarik ederrena da emanaldi bakoitzean gauza berri bat balitz bezala, harridura horrekin aritzea. Hori da, momentuz, guk aktore gisa daukagun eginbeharra publiko hunkitu dadin. Gure hunkiduratik eta ofiziotik ondo heltzen badiogu horri, gainerakoak, txaloak eta abar, etorriko dira.

Atsobakar kirol gunea hilaren 21ean irekiko da

Lau hilabetez Iberdrolaren zain egon ostean, atek irekiko ditu kirol instalazio berriak. Klubek, herritarrek zein Buruntzaldeko kirol abonatuak erabili ahaliko dute eremua. Oraingoz izapide baten zain, entrenamendu saioetarako bakarrik erabiliko da gunea

Txintxarri

"Hilaren 21a egun berezia izango da Lasarte-Orian. Desiratu-tako eta denbora luzez esperotako kirol gunea irekiko da. "Ametsa egi bihurtu da. Pozarren gaude. Eskerrak eman kirolariei, Kirol eta Hirigintza arloei" Horrela hasi zuten hilaren 16an, Agustin Valdivia alkateak eta Goizalde Pildain kirol zinegotziak Atsobakar kirol gunearen gaineko agerraldia.

Instalazioen erabileraren nondik norakoak azaldu baino lehen, kirol gunearen irekieraren atzerapenaren berri eman zuen alkateak eta Iberdrolari egotzi dio errua: "Lanak irail-urrian amaituta egon arren, Iberdrolak gune guztia martxan jartzeko beharrezkoa zen energia potentzia emateko zain egon gara. Ia lau hilabete egon gara zain. Tamalgarria da herritarren erabilerarako kirol instalazio batzuek hainbeste itxaron behar izatea".



Udal ordezkariak, atzean kirol gune berria dutela. TXINTXARRI

Atsobakar gunearen irekiera udalak martxan duen kirol instalazioen berrikuntza planeko lehen pausoa dela gogoratu zuten udal ordezkariak prentsaurrekoan; hurrengo kiroldegi berriaren eraikitzea izango da.

Era berean, gune berria eremuan erreferente bihurtu eta

herriko kirolarien garapenarentzat onuragarria izatea espero dutela azpimarratu zuten udal ordezkariak. Pildainen hitzetan, "Lasarte-Orian maila oneko kirolari eta promesak ditugu. Euren jarduna aurrera eraman eta euren ibilbidea garatu ahal izateko lehen mailako instala-

zioak dira hauek. Udalak kirolaren alde apustu egin duela argi geratu da".

Instalazioen erabilera

Aurreratu moduan, hilaren 21ean 15:30etik aurrera herriko kirol elkarteek eta herriko zein Buruntzaldea eremuko kirol abonatuak instalazio berria erabili ahaliko dute.

Kirol elkartei dagokionez, atletak eta errugbi zein futbol taldeak izango dira gune berriaz baliatuko direnak. Era horretara, Michelingo jarduera arindu eta herritik kanpo entrenatzen ari diren taldeak herrira itzultzea ziurtatzen da.

Michelinetik datozen taldeei, "euren jardunean asko ez eragiteko" egun duten ordutegia mantenduko zaiela ere jakinarazi zuten.

Eta gainera klubek indarra landu eta kirol osteko errekupeziararako gimnasio espezifikoa bat izango dutela ere zehaztu zuten: "Errugbi eta atletismoko kideek lehorrean lan egin ahal izateko prestatu da. Oraindik gela hutsa dago, baina egun batzuk barru iritsiko da makinaria".

Halaber, Atsobakar gunean klubak eta erabiltzaileen jarduera bateragarri egin nahienez, kirol zerbitzua erabilera araudi batean pentsatzen ari dela aurreratu eta lehiaketa edo neurketaren batean pista edo gunea itxita egon daitekeela ere azaldu zuten: "Futbol partidak

badaude, zaila izango da pista erabili ahal izatea".

Baina oraingoz entrenamendu saioak izango dira instalazioetan egin ahaliko direnak; partidak edo lehiaketak ikusteko tartetxo batean itxaron beharko da: "Homologazioaren azterketa tekniko egin da, baina baiezkoaren zain gaude".

Bestelako doikuntzak

Kirol gune berriaren eraikina energetikoki eraginkorra da; eraikineko temperatura berotu edo hoztuko duen aerotermia sistema bat du eta horri esker, A mailako ziurtagiria jaso du.

Hala ere, instalazioa berria den arren, doikuntza batzuk egiteko daudela jakitera eman zuten agerraldian.

Batetik Luzuriaga aldean da goen atearen atzeko sarearen tamaina handituko da eta beste atearen atzean ere sare jarriko da, "pistako ilargi erdiak lasai erabili ahal izateko".

Eta 2025. urteko aurrekontuetan aurreikudi modura, harmaila jarriko da harrera eraikuntzaren ondoan dagoen orubean.

Horrez gain, kirol instalazioa irekiko den arren, gunean dagoen taberna oraindik ez da irekiko. Prentsaurrekoan alkateak zehaztu moduan, "aurrerago lehiaketara aterako dugu. Zein modelo erabiliko den aztertu behar dugu, kiroldegi berrian ere taberna izango da eta. Horren arabera zehaztuko dira baldintza agiriak".

II. mailako Gipuzkoa Sortzenek, borrokatutako garaipena

Beltzak RTko taldeek zein jokalariek euren onena eman dute urteko lehen partidari; orotariko emaitzak izan dituzte

Txintxarri

Urte berriari hasiera emateko, errugbi liga ezberdinetako hitzorduak izan ziren hilaren 11n eta 12an. Beltzak RTko ordezkariak denetarikoko emaitzak izan zituzten.

Euskal Ligako II. mailako Gipuzkoa Sortzen-Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrek neurketa jokatu zen hilaren 11an; etxeko taldeak 33-22 irabazi zuen euria ere protagonista izan zen norgehiagokan.

Neurketa hasi baino minutu batzuk lehenago hasi zen euria

eta zaparrada ederrak egin zituen partida amaitu zenera arte.

Michelin kirol guneko giroa hoztu zen arren, zelaian ez zen horrela izan. Epaileak txistua jo zuenean hasi ziren bi taldeak borrokan. Lehia bizia egon zen lehen minutuetan, baina bizkaitarrak izan ziren lehenak entsegu marra igarotzen eta entsegu gauzatzean ere ez zuten hutsik egin.

Beltzek ederki egin zuten lan markagailua berdindu eta ostean, baloiaren jabetza eta zelaian metroak irabazteko borroka



Gipuzkoa Sortzen eta Arratiko Zekorren arteko neurketako irudia. TXINTXARRI

latza izan zen bi taldeen artean. Entsegu eta zigor osteko batek aurkariak atsedendira alderantziz txikia izatea ekarri zuen, 12-15.

Indarrak berreskuratuta atera zen etxeko taldea bigarren zatian eta ederki egin zuen lan emaitzari itzulua eman eta garaipena

eskuratzeko. Azken emaitza 33-22 izan zen.

Garaipena eta porrota

Jardunaldia jokatu zuten beltzen gainerako taldeek txanponaren bi aldeak bizi izan zituzten Zarautz eta Lekarozen (Nafarroa).

Asti zelaian emaitza ederra lortu zuen Ohorezko B Mailako taldeak. Gipuzkoa Sortzen nagusi izan zen Uribealdearen aurkako neurketan eta Fran Puertas herritarrek zuzentzen duen taldeak 43-7 irabazi zuen.

Euskal Ligako I. mailako taldeak, aldiz, ezin izan zuten Menditarrak gainditu, baztandarrak 20-0 gailendu ziren.

Euskadiko selekzioan

Era berean, Espainiako Erkidegoen arteko txapelketako laugarren jardunaldian jokatu zen hilaren 12an, Ordiziako Altamira zelaian. Euskadik Gaztela eta Leon izan zuten aurkari.

Neurketa borrokatuan 35-22 gainditu zuen Euskadik aurkaria. Hamabostekoan Beltzak RTko harrobiko kide Eneko Sanchez izan zen.

Herritarrak, II. Euskal Ligako podiumean

Aimar Sukunza eta Mari Carmen Olaso herritarrek Euskadiko txapelketa lehiatu dute. Sukunzak 23 urtez azpiko hirugarren postua eskuratu du. Horrez gain, 2024ko ligako sariak ere banatu dira. Sukunzak bere mailako urrea jaso du; Olosok, aldiz, zilarra

Txintxarri

Urtarrilean krosek hitzordu garrantzitsuak lehiatu dira. Hilaren 5ean, Nazioarteko Juan Muguerza krosa jokatu zen Elgoibarren eta hilaren 12an, aldiz, Euskadiko txapelketa zen Txingudiko krosa. Azken horretan, gainera, II. Euskal Kros Ligako sariak banatu zituzten eta bi herritarrak izan ziren ligako podiumean Mari Carmen Olaso eta Zumeatarra taldeko Aimar Sukunza.

Lehenik maila ezberdinetako Euskadiko txapelketa lehiatu zen. 23 urte azpiko kategorian hirugarren postua eskuratu zuen Sukunzak 34,05eko markarekin. Mari Carmen Olaso ere izan zen lasterka eta master mailako 9. postuan sailkatu zen, helmugara 58,49an iritsiz.



Ezkerrean, Sukunza, podiumean eta eskuinean, Olaso, lehian. G. SUKUNZA/GOIERRIKO HITZA

Ostean, 2024. urteko ligako jarduna saritu zuen Euskadiko Federazioak eta lortutako emaitzengatik, Sukunzak 23 urtez azpiko txapelkunaren garaikurra jaso zuen eta Olosok, aldiz, zilarrezko domina.

Astebete lehenago, hilaren 5ean, Nazioarteko Juan Muguerza krosa izan zen Elgoibarren eta mundu osoko atleten artean izan zen Sukunza lehian; herritarrak 34,47 egin zuen helmugan.

Herriko atletek, lehen dominak Gipuzkoako txapelketan

Markak ontzeaz gain, Real Sociedad taldeko Naroa Elvira herritarra podiumeko bigarren mailara igo da

Txintxarri

Hilaren 11an, 23 urtez azpiko Gipuzkoako zein Nafarroako txapelketak lehiatu ziren Donostiako Antonio Elorza Belodromoan. Lurraldeko zein nafarroako atletak bildu ziren pistan, baita beste mailetako kirolariak ere. Izan ere, hurrengo asteetan antolatuko diren lehietarako marka baliagarriak lortzeko proba izan batzen.

Lasarte-Oriako ordezkariak izan ziren bertan, hala nola, Real Sociedad taldeko Naroa Elvira Etxeberria eta Atletico San Sebastian taldeko Nerea Eugi Zubizarreta. Lehena podiumera igo zen 60 m. lehiaketan; zilarrezko domina jantzi zuen. Bere denboraldiko marka pertsonala ere gaingitu zuen, 8,07.

Lasterketa horretaz gain, Elvirak 200 m. saioan parte hartu zuen 24,44 marka eginez. Eta Eugik ere proba bereko beste serie batean izan zen borrokan; herritarrak 25,44 egin zuen bere denboraldiko marka onduz.



Elvira, podiumean. GUPODESIGN/GAF

Absolutu lehia

Era honetara, lurraldeko zein Euskadiko txapelketen denboraldia hasi da eta hurrengo asteetan hitzordu garrantzitsuak izango dituzte herriko atletek. Hilaren 18an, esate baterako, absolutu mailako Gipuzkoako txapelketaren txanda izango da. Herriko ordezkariak goiz eta arratsaldeko saioetan jardungo dira Donostiako Belodromoan.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Ondarbeltz Amaikak M. Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
GORENGO MAILA
Billabona KE - Ostadar SKT Larunbata. 19:45. Arratzain, Villabonan.
ERREGIONAL I. MAILA
Ostadar SKT - Texas Lasartearra CF Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.
OJM, JAITSIERA
Lazkao KE - Ostadar SKT Larunbata. 17:00. Arizti Handi, Lazkaon.
JUBENILEN GORENGO MAILA
Urola KE B - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Argixao, Zumarragan.
JUBENILEN I. MAILA
Umietara KE B - Ostadar SKT Larunbata. 15:45. Umietan.
Texas Lasartearra CF - Usurbil FT B Igandea. 10:45. Michelin kirol gunean.
Mundatx SCD B - Texas Lasartearra CF B Igandea. 12:15. Martutene, Donostian.
OKM, JAITSIERA
Ostadar SKT - Urki CD Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.
K. I. MAILA, KOPA
Texas Lasartearra CF - Elgoibar CD C Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.

Kostkas CD E - Ostadar SKT B Igandea. 09:00. Matigoxotegi, Donostian.
K. I. MAILA, UDABERRIKO K.
Umietara CD B - Ostadar SKT C Igandea. 10:00. Umietan.
ARETO-FUTBOLA
I. MAILA
Gaintxu AFT - Eguzki Arkupe Rehab. Ostirala. 20:50. Bekoerota kirol., Lezon.
III. MAILA
Gamon Auzi - Eguzki ISU Leihoak Ostirala. 21:30. Beraun kirol., Erreterian.
GAZTEEN MAILA
Eguzki Bod. Ayesa - Ingu Aloña Mendi Larunbata. 10:50. Maialen Chourraut kirol.
KADETE MAILA
Eguzki Goxokis Goxua - Irun Futsal Larunbata. 13:00. Michelin kirol gunean.
SASKIBALOA
II. MAILA
Ostadar SKT - AZ Casa de la Rioja Larunbata. 18:30. Maialen Chourraut kirol.
J. E. ZILARRA, URRERAKO S.
Bera Bera Rikardo Taberna - Ostadar SKT Larunbata. 19:00. Mateo kirol., Donostian.
K. E. URREA, EUSKAL LIGARAKO K.
Ostadar SKT - Antigua Luberrri KE Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

K. E. ZILARRA, URRERAKO S.
Ebranzin Autoeskola ISB - Ostadar SKT Larunbata. 13:00. Azpeitiako kirol.
K. PARTAIDETZA, 9-16 POSTUAK
Ostadar SKT - ZAST Bollicao Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.
BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Navarro Villoslada - Ostadar SKT Igandea. 13:30. Iruñea, Nafarroan.
JUBENIL MAILA, GIP. TXAPELKETA
Fortuna 1 - Ostadar SKT Larunbata. 19:00. Pio Baroja kirol., Donostian.
KADETE MAILA, GIP. TXAPELKETA
Ostadar SKT A - Ipar Titanak A Larunbata. 12:30. Maialen Chourraut kirol.
Ostadar SKT B - Aizapeta Maria Larunbata. 12:30. Maialen Chourraut kirol.
INFANTIL MAILA, GIP. TXAPELKETA
Tolobolei A - Ostadar SKT Larunbata. 12:00. Uzturpe pil., Tolosan.
PILOTA
UDABERRI, NAGUSIEN I. MAILA
Azk. Oteiza 1 - Intza Ostirala. 18:00 (3. partida). Gurea pil., Azkoitian.
UDABERRI, GOMAZKO P. NAGUSIAK
Altzatarra 1 - Intza Ostirala. 18:00 (1. partida). Altxa pil., Donostian.

ESKUZ BINAKA, INF. I. MAILA
LAPKE 3 - Intza Ostirala. 18:00 (4. partida). Joxe Miel 2 pilotalekua, Lazkaon.
ESKUZ BINAKA, INF. II. MAILA
Intza - Behar Zana Larunbata. 16:30 (2. partida). Michelin kirol guneko pilotalekuan.
ESKUZ BINAKA, ALE. I. MAILA
Gaztelupe B - Intza Ostirala. 18:30 (1. partida). Resti pil., Zaldibian.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Gijon Rugby Club - Gipuzkoa Sortzen Larunbata. 16:00. Gijon, Asturiasen.
EUSKAL LIGA, I. MAILA
Uni. Bilbao Rugby - Gipuzkoa Sortzen Larunbata. 16:00. Bilbon, Bizkaian.
EUSKAL LIGA, II. MAILA
La Unica RT - Gipuzkoa Sortzen Larunbata. 15:00. Iruñea, Nafarroan.
18 URTEZ AZPIKOAK
Gaur Logistica Ordizia - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT Larunbata. 12:00. Ordizian.
16 URTEZ AZPIKOAK
Gernika RT - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT Larunbata. 11:30. Gernika, Bizkaian.

12 ETA 10 URTEZ AZPIKOAK
Beltzak RTko eskolako gazteek topaketa izango dute. Igandea. 10:00. Puio, Donostian.
IGERIKETA
ALEBIN LIGA
Buruntzaldea IKTKo alebin mailako igerilariak Ligako hirugarren jardunaldian parte hartuko dute. Larunbata. 18:00. Usabal kirol., Tolosan.
BENJAMIN TOPAKETA
Buruntzaldea IKTKo benjaminek bigarren topaketaz gozatuko dute. Larunbata. 15:30. Usabal kirol., Tolosan.
ATLETISMOA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Lasarte-Oriako atletak pista estaliko Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute. Larunbata. Antonio Elortza Bel., Donostian.
XAKEA
II. MAILA
Taula A - Salto Bidasoa C Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean.
III. MAILA
Salto Bidasoa D - Taula B Larunbata. 16:00. Irunen.
GAZTEEN TXAPELKETA
Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldiari jokatuko dute. Igandea. 10:00. Karmelo Balda pil., Donostian.

Pilotariak binakako lehian murgildu dira

Herriko pilotariak Udaberri zein Errendimenduko binakako txapelketetan parte hartuko dute maila eta talde ezberdinetan. Ongi hasi dute lehia; lehen hitzorduan, gomazko paleta bikoak izan ezik, Intza KEko bikote gehienek garaipena erdietsi dute

Txintxarri

Urte berriarekin batera, Intza Kirol Elkarteko pilotariak Udaberri eta Errendimenduko binakako Gipuzkoako txapelketei hasiera eman diete. Lehen jardunaldian gomazko pilotako bikoak izan ezik, kirol elkarteko ordezkariek garaipena erdietsi zuten.

Errendimendu mailako gazte- txoek indartsu egin zioten aurre bikotekako lehen erronkari. Aurten berrikuntza bat dute, Intzako kideekin batera Orio eta Amezketako gazteak ere ari dira lehian.

Hilaren 10ean, Loidibarren pilotalekuan, alebin I. mailako zein infantil I. mailako bikoien neurketaz gozatu ahal izan zen. Lehen partidari Irai Jauregi herriarrak eta Aiur Gorostidi amezketarrak 16-6 garaitu zuten LAPKE 1. Infantil mailako bikotea ere primeran jardun zen etxean eta Kimetz Atorrasagasti oriotarrak eta Oier Jauregi herriarrak osatutako bikotea



Infantil I. mailako bikoak, Ilunperen aurka jokoan. TXINTXARRI

18-9 gailendu zitzaion Ilunpeko bikoari.

Eta emaitza ederra lortu zuten Intzako infantil II. mailako kideek, hilaren 12an, Tolosako Beotibarren. Markel Lopez eta Ekhi Maizek 6-18 gailendu zuten Tolosa 1.

Federatuak, aldiz, Udaberri lehiaketan murgildu dira. Eskuz binaka zein gomazko pala modalitatean arituko dira Lasar-

te-Oriako ordezkariek Nagusien I. mailan eta II. mailan, hurrenez hurren.

Michelin kirol guneko pilotalekuan jokatu zuten eskuz binakako Jon Pello Artetxek eta Peru Urdanpilletak hilaren 9an. Partida ongi borrokatu eta 22-19 irabazi zuten LAPKEren aurka.

Bestelakoa izan zen gomazko pilotako kideen emaitza. Urnietan izan zuten aurrez aurre Iker Artetxek eta Jagoba Mendizabalek osatutako bikoak eta 17-25 gailendu zen aurkaria.

Kanpoan jokoan

Eta Intzara kanpoko herrietatik lehiatzera etorri diren moduan, etxeok ere kanpoko taldeekin ari dira lehian. Hori da, Itxaso Iparragirre eta Haritza Diaz de Gereñuren kasua.

Iparragirrek Zazpi Iturriekin lehiatuko du Errendimenduko nesken binakako txapelketa; Diaz de Gereñuk, berriz, Alde Zaharran egingo du Udaberri txapelketa.



JJ PORTOS

Goenaga, Gipuzkoako txapeldun

Aulki mugikorreko Distantzia luzeko Gipuzkoako txapelketa jokatu zen hilaren 12an Hondarribian. Banakako, binakako zein launako lehiak izan ziren eta 2x junior mailan Nahia Goenaga herritarra izan zen borrokan Donostia Arraun Lagunak taldeko kide Ane Vilagarciarekin batera, Hondarribia eta Orioko ontziak garaitu -15,34 marka egin zuten helmugan- eta urrezko domina jantzi zuten bikoteak.

Neurketa prestatzen

Euskal Kirol Egokituko Federazioko Futbol taldeek entrenamendu saioa egin zuten hilaren 11n Michelin kirol gunean. Hilaren 18an, Burgosen, Gaztela eta Leonen aurka jokatu duten neurketa prestatzeko baliagarri izan zen emakume zein gizonen taldeek egindako lan saioa. Areto Futboleko kantxan ariketa tekniko ezberdinak egin zituzten, baita partidatxoren bat jokatu ere.



TXINTXARRI

Taula Xake Klubeko kideek Gipuzkoako Liga hasi dute

Bigarren eta hirugarren mailan lehiatuko dira taldeak. Erlantz Sanchezek Gazteen mailako txapelketa ere lehiatuko du

Txintxarri

Taula Xake Klubeko kideek taldeko Gipuzkoako txapelketa jokatu dute urtarriletik apirilera. Bi talde aurkeztu ditu aurten herriko xake taldeak: bata II. mailan eta bestea III. mailan. Lehiari hasiera emateko garaipen bat eta berdinketa bat eskuratu zuten taldeko ordezkariek.

Lehen jardunaldia hilaren 11n jokatu zuten Taulako bi taldeek. Etxean jardun zen III. mailako Taula B. Astigarraga Cko laukoa izan zuten aurrez aurre Victor

Alvaro Martin, Ander Etxauri Lizeaga, Mikel Manterola Iraztorza eta Ixone Jurado Furundarenak osatutako taldeak. Manterola gazteak izan ezik, gainerakoek euren aurkariak gailendu zituzten.

II. mailako taldeak, aldiz, Donostian jokatu zuten Gros Hren aurka. Miguel Maria Baroja Arruek, Pablo Arrondo Carbonell, Jose Ignacio Echeverria Eleicegui eta Erlantz Sanchez Huertak osatutako taldeak bina berdindu zuten; Barojak eta Arrondok eskuratu zituzten puntuak.



Taula B taldeko kideak lehen jardunaldia jokatzen. TXINTXARRI

Taulako taldeek helburu ezberdinak dituzte lehiaketa horretan. II. mailako Taula Ak iaz eskueztatik ihes egin zion igoera eskuratu nahi du. Horretarako taldeak bi multzoetan banatuta -Taula A multzoan dago- zazpi jardunaldi jokatu dituz-

te eta bere multzoko lehen lau postuetan sailkatuz gero igoera faserako txartela eskuratu du. Horrela izan ezean, maila mantentzeko lehiari sartuko litzateke.

Taula B, aldiz, formaziorako taldea izango da eta Xake esko-

lako harrobian dauden gaztetxoek lehiatzeko aukera emango die. Hirugarren mailan lehiatuko da eta bi multzotan izango dira lehiari; Taulako ordezkariek B multzoan dago. Horiek ez dute igoerarik jokatu eta Gipuzkoako txapelduna bi multzoen arteko lehen sailkatuen artean jokatu da.

Gazte txapelketa

Bestalde, Gazteen Gipuzkoako txapelketa ere jarri da martxan. Gros Taula Xake klubeko lokalean jokatu da lehia urtarrila eta otsailean zehar igande goizetan.

Taula kide Erlantz Sanchez Huerta da partaideetako bat eta ez du zortetik izan bere lehen neurketan; Kimetz Lekuona Garcia hondarribiarrak herri-tarra garaitu zuten.

Euskal Ligako taldeak, garaipen berria poltsara

Ostadar SKTko taldeak denboraldi hasieratik ez du neurketarik galdu. Igoera fasea du helburu Asier Acuriolaren taldeak. Talde urdin-beltzeko gainerako ordezkariak Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldia jokatu eta emaitza ezberdinak izan dituzte

Txintxarri

Ostadar Boleibol taldeek lehia hasi dute 2025 urtea. Euskal Ligako II. mailan garaiezin jarraitzen du talde urdin-beltzeko ordezkariak eta gainerako taldeak Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldiari egin diote aurre, Kadete A taldeak izan ezik; Aiztondo NKTren aurkako neurketa atzeratu zuten.

Euskal Ligako taldeak hamar jardunaldi jokatu ditu eta ez du bat ere galdu. Asier Acuriolak zuzentzen duen ekipoa bere multzoko sailkapenburu da eta bere helburua lortzeko bidean da; lehen mailarako igoera jokatzeara.

Azken hitzordua hilaren 11n jokatu zuten harmailak ia beteta zituen Maialen Chourraut kiroldegian. Laugarren sailkatu den Bera Bera izan zuen aurrez aurre. Acuriolak azaldu moduan, lan gogorra zuen etxeko taldeak:



Euskal Ligako Ostadar-Bera Bera neurketako irudia. TXINTXARRI

"Bera Bera talde borrokalaria da eta ez da erraza euren aurka garaipena lortzea".

Eta aurreikusitakoa bete zen kantxan. Neurketa borrokatua

jokatu zuten bi taldeek, Ostadar zein Bera Berak defentsa lan handia egin zuten baina talde urdin-beltzak aurkariaren hutsuneak ongi baliatu eta 3-1

gailendu zen. Ostadarreko entrenatzailean hitzetan, "partida zelaian irabazi zen eta ez sarean".

Lehen setean jokoan nagusi izan zen etxeko taldea. Acuriolaren jokalariek aurre hartu zuten markagailuan eta Bera Beraren defentsa sendoa gaindituz 25-21 lortu zuen neurketako lehen puntua.

Eraso eta defentsa akats batzuk etxeko taldeak ongi ez lehiatzen eraman zuen eta ondorioz, bigarren zatia donostiarraren aldekoa izan zen, 25-12.

Gainerako bi setetan lehen zatian egin moduan talde urdin-beltzak aurre hartu zion Bera Berari. Ostadarrek era egonkorrean jokatu zuten; erasoan eta defentsan sendo mantendu zen eta 25-21 eta 25-15 irabazi zituen garaipena emango zioten puntuak.

Igoera, buruan

Lehen faseari amaiera emateko lau jardunaldiren faltan, norgehiagokarik galdu gabe B multzoko lehen postuan finkatu da talde urdin-beltza 29 punturekin. Lehen lau taldeek jokatu dute igoera fasea eta herritarrak bertan egotea espero dute.

Acuriola pozarren agertu da taldeak orain arte egindako lanarekin eta azaldu duenez, denboraldi hasieran adostutako helburua betetzeko pausoak

ematen ari dira jardunaldiz jardunaldi: "Igoera jokatu nahi dugu eta bidean gara".

Gipuzkoako txapelketa

Boleibol saileko gainerako taldeek, aldiz, Gipuzkoako txapelketari eman diote hasiera. Lehen fasea amaitu eta gogotsu hasi dira erronka berrian talde urdin-beltzeko ordezkariak.

Senior mailako taldeak Hondarribiara egin zuen bidaia eta etxera ekarri zituen garaipeneko puntuak, Harresi 2-3 gainditu ostean.

Ez zen hori Ostadarrek Hondarribiarraren aurka jokatu zuen norgehiagoka bakarra izan; jubel mailako taldeak Maialen Chourraut kiroldegian hartu baitzuen Harresiko ordezkaria. Etxeko taldeak 3-1 irabazi zuen lehia.

Kadete mailan Ostadar B taldeak Irunen Mayumi 2ren aurka jokatu zuen. Talde urdin-beltza nagusi izan zen eta 0-3 gailendu zen.

Arestian aipatu legez, maila bereko A taldeak hurrengo jardunaldira itxaron beharko du kantxara ateratzeko; Villabonako taldearen aurkako lehia atzeratu zuen.

Eta azkenik, infantil mailan Lizardi Bi 1-3 gailendu zitzaion etxeko taldeari Maialen Chourraut kiroldegian jokatutako partidari.

Buruntzaldea IKTko kideak, garaikur eta markak metatzen

Igeriketa taldeko kideak ederki jardun dira Hernaniko Sarian zein Master mailako Gipuzkoako txapelketan

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko kideek bi hitzordu berezi izan zituzten hilaren 11n. Master mailako kideak berriro igerilekuan lehia izan ziren euren mailako Gipuzkoako txapelketa eta gainerakoek Hernaniko Sarian parte hartu zuten. Azken horretan Garazi Etxeberria, Miren Sarobe eta Iker Gorostegui kideak podium orokorrean izan ziren.

Hamabost kide aurkeztu zituen igeriketa taldeak Hernaniko klubak antolatutako probara. Buruntzaldea IKTko kideez gain, Hernaniko, Taosa, Izarraitz, Zarautz, Ordizia, Igartza eta Bergarako igeriketa taldeetako kideak izan ziren lehia.

Taldeakide bakoitzak aukeraturako estilo bateko 100 metroko proba bat eta 200 m. lau estilo saioa egin behar izan zituzten igerilariak. Eta amaitzeko 4x50 m. libre erreleboa ere lehiatu zuten gazteek.

Guztira 21 marka pertsonal ondu zituzten eta hainbat probatan lehen postuetan izan ziren igeriketa taldeko kideak. Buruntzaldea IKTko arduradunek nabarmentzen dutenez: "100 metroko probetan gure igerilariak sentsazio oso onak eduki zituzten, hobekuntza nabarmenak ikusi genituen bai denborretan, bai igeri egiteko moduetan ere. Lau estiloetako 200



Buruntzaldea IKTko igerilariak ederkijardun ziren. BURUNTZALDEA IKT

metroko probarako atsedena hartzeko parada edukita, gazteek gogotsu eta ausart ekin zioten, emaitza ederrak lortuz".

Gainera, hiru kide sailkapen orokorreko lehen postuetan izan ziren lortutako puntuei esker; Garazi Etxeberria garaile izan zen, Iker Gorostegui zilarrezko domina jantzi zuen eta Miren Sarobe hirugarren mailara igo

zen. Gainera, errelebo proban ere lehen postua eskuratu zuen Buruntzaldea IKTk.

Masterrak, bikain


Eibarren Igeriketa taldeko lau kide - Manu Santos, Miren Bardaji, Borja Apeztegia eta Itsaso Tolosa - Gipuzkoako Open Master Txapelketan parte hartu zuten.

Lehiaketak bi saio izan zituen eta taldekide bakoitzak bi edo hiru banakako proba burutu zituen: Manu Santos-ek 200 m. eta 100 m. libre probak; Miren Bardajik 100 m. bular proba eta 400 m. libre saioa; Borja Apeztegiak 50 m. bular zein libre probak eta Itsaso Tolosak 50 m. eta 100 m. bizkar probak zein 50 m. tximeleta. Eta lehiatutako proba ia guztietan marka pertsonal ezartzea lortu zuten.

Bakarkako saioez gain, Buruntzaldea IKTk eraketa mistoan bi errelebu osatu zituen. Lau estiloetako 4x50 m. erreleboan 02.32,43 markarekin bigarren sailkatu ziren eta estilo libreko 4x50 m. lehia, aldiz, hirugarren.

Igeriketa taldeko arduradunek azpimarratu dutenez, markak eta alde batera utzita, hitzordu horretan garrantzitsuen "Master taldeko igerilariak berriro lehia izatea eta txapelketaren jardunarekin horrenbeste gozatzen ikus-tea" izan zen.

ZORION AGURRAK



Aratz
Zorionak Aratz!! Egun eta urte zoragarri izan dezazun! Askok maite zaitugu, Aiur, Koa, eta gurasoen partez. Muxu erraldoia

Beñat
Zorionak Beñat! gure etxeko kirolariak 8 urte egin ditu! muxu asko familiaren partetik

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurra.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailearik ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioz.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK
ARTE JASOKO DITUGU

SUDOKUA

		2			3	5		
5		7	9					3
		3		1	5			6
	7	1		5	8			4
		5		2	9	7	1	
		4		7				
1	5			3		2	4	
	3	8			4	6	5	
	4							3

Sudoku10.net

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 17	KNIESE
LARUNBATA, 18	DE MIGUEL
IGANDEA, 19	DE MIGUEL
ASTELEHENA, 20	KNIESE
ASTEARTEA, 21	GIL
ASTEAZKENA, 22	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 23	KNIESE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Etxebeste Farmazia: Elkano kalea 9
behea, Hernani. 943-55 20 87

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com
webgunean eskuragarri.

OHARRAK

Kirol instalakuntzen itxiera berezia

Hurrengo egunetan Lasarte-Oria kirol instalakuntzek itxiera bereziak izango dituzte mantenu lanak direla eta.

Loidibarren pilotelakuko zorua tratatu egin behar dutela-eta, udalak jakinarazi du herritarrek ezingo dutela astelehen osoan, hilaren 20an zehar erabili. Lan horiek sor ditzakeen eragozpenak barkatzeko eskatu du.

Bestetik, Iberdrolaren mantentze lanak direla eta, hilaren 22an, asteazkenarekin Maialen Chourraut kiroldegia goizeko 11:00k arte itxita egongo da. Ordu horretatik aurrera, kiroldegia normal zabalduko da.

Informazio gehiago behar izanez gero, kirolak@lasarte-oria.eus helbidean emango dituzte azalpenak kirol zerbitzuko arduradunek.



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

EROSI

Garaje bat erosiko nuke herri erdigunean irekia edo itxia. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

ERRENTAN HARTU

Etxe bat alokatu nahiko nuke. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

ERRENTAN EMAN

Apartamentu bat alokatzen dut Landetan (Vieux-Boucau). Urte guztirako edo udan zein Aste Santuan: 688 66 79 82.

LANA

ESKARIA

Interna gisa lan ugari egiteko prest nago, besteak beste, adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetarako, 613 95 31 26.

Babilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakasgaietako klase partikularrak emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

12 urteko neska bati zatikiak edo saio partikularrak emateko norbait behar dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

SALEROSKETA

Helduentzako trizikloa saltzen dut. Interesdunek 630 85 57 96 telefono zenbakira dei dezatela.

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Karreterako bizikleta, BMC SLR03 Beltza eta ondo zainduta. 607 49 16 63 (Aritz).

125 c.c-ko motorra, Piaggio Liberty beltza. 2013 urtean matrikulatuta eta 21.000 km. 616 43 47 65 (Joxe).

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitetz gurekin harremanetan

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Xuban Urdaleta, Nikola Iraola, Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola eta Iñigo Ibarburu.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 17

LASARTE-ORIA Erakusketa

Ibon Rosalesek *Ordu txikitako argi magikoak* argazki erakusketa zabalduko du.

Jalgi Kafe Antzokia, 09:30etik 22:00etara.

DONOSTIA Erakusketa

Gotzon Huegun eskultore lasarteoriarrak gizakiaren eta naturaren arteko harremana esploratu eta *Sinkronia* izeneko erakusketa ondu du. Martxoaren 16ra arte izango da zabalik.

Cristina Enea fundazioaren egoitza (Mandasko Dukearen jauregia), 09:30etik 18:00etara.

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Jose Luis Navarro historialariak *Dos libros lasartearras del siglo XVII* lana aurkeztuko du; Miguel de Okendok mende horretan idatzitako bi kontakizun transkribatu eta bateratu ditu liburu bakarrean. Bertaraten direnek ale bana etxeratzeko aukera izango dutela jakinarazi dute antolatzaileek.


Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 19:00etan.

LARUNBATA 18

LASARTE-ORIA Bilketa

Lasarte-Oriako Elkartasun Sareak elikagaiak eta negurako materiala (arropa, mantak, eskularruak, txanoak...) bilduko ditu, Donostiako Kaleko Afari Solidarioak ekimeneko kideekin lankidetzan aritzeko. Egitasmo horri buruzko informazioa ere banatuko dute.

Okendo plaza, 11:00etatik 13:30era.



LASARTE-ORIA Antzerkia

Markeliñe Teatroa konpainiak *Zepo Zapo* antzeulanaren emanaldia egingo du. Haurrei zuzendutako antzezlana da eta sarrerak 4 euro balio dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

Bihar, hilak 18, Manuel Lekuona Kultur Etxean, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Markeliñe Teatroa konpainiak *Zepo Zapo* antzeulanaren emanaldia egingo du. Haurrei zuzendutako antzezlana da eta sarrerak 4 euro balio dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

Kultur etxea, 17:00etan.

IGANDEA 19

LASARTE-ORIA Zinema

Haurrei zuzendutako *Harold y el lápiz mágico* filma emango dute. Sarrerak 4 euro balio dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Helduei zuzendutako *¿Es el enemigo?* filma emango dute. Sarrerak 6 euro balio dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

Kultur etxea, 19:30ean.

OSTEGUNA 23

LASARTE-ORIA Aurkezpena

TrukeLandia egitasmoa aurkeztuko dute; GurasoLanetan parte hartzen ari direnentzat. Gonbidapenak eskuratu behar dituzte aurretik.

Kultur etxea, 17:30ean.

LASARTE-ORIA Solasaldia

Sole Agirre Garro aktibista gonbidatuko du Borobilean Elkartean, pentsiodunen mugimenduak aurkeztu duen Herri Ekimen Legegilearen harira.

Oriarte Landaberri, 19:00etan.

OSTIRALA 24

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak hilabeteko bigarren emanaldia egingo du: *Marco*. Sarrerak 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

ZINEMA



LABURPENA

'Es el enemigo?'

Zuzendaria: Alexis Morante. **Gidoia:** Alexis Morante, Raul Santos. **Argazkia:** Carlos Garcia de Dios. **Ekoizleak:** Pecado Films, Arcadia Motion Pictures. **Herrialdea:** Espainia (2024). **Iraupena:** 100 minutu. **Generoa:** Drama. **Aktoreak:** Oscar Lasarte, Carlos Cuevas, Natalia de Molina, Salva Reina, Ivan Villanueva.

Umorearen indarra

Miguel Gila izeneko gazte baten istorioa kontatu du Alexis Morante zuzendariak *Es el enemigo?* pelikulan. Lasai-lasai bizi da ganbara batean aiton-amonekin baina 1936ko gerra lehertzen denean gudarostean aritu beste erremediorik ez du

izango, bere lagun Pedrorrekin batera. Miseria, penuria, guda, fusilamenduak edota espetxeratzeak izango dira beraien eguneroko ogia eta Miguelek umorea erabiliko du egunero-egunero aurrera jarraitzeko.

LARUNBATA 25

LASARTE-ORIA Manifestazioa

LOOPA plataformak manifestazio bat egingo du *Non daude gure medikuak?* lelopean.

Osasun zentroa, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Artedrama antzerki konpainiak *Miñan* antzeulanaren emanaldia egingo du. Sarrerak 6 euro balio

duzela jakinarazi dute ikuskizunaren antolatzaileek.

Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 26

LASARTE-ORIA Zinema

Bi film hauek emango dituzte: 17:00etan, *Sonic 3* (4 euro). 19:30ean, *Cuando el otoño cae* (6 euro).

Kultur etxea, arratsaldean.





batu txintxarri kanalera!








BAZKIDETZA

Urtarrilaren 31 baino lehen bazkide egiten bazara EUSKARALDIA 2025eko produktuen zozketan sartuko zara




TTAKUN




TTAKUNENEA



TTAKUN
KULTUR ELKARTEA



solaskide



Eta euskaraz egiten badugu?

Eman izena urtarrilaren 31 baino lehen:

Ttakun Kultur Elkartea | LASARTE-ORIA

kultura@ttakun.eus 943-37 14 48 • 695 78 53 89



MERKEALDIA

2MÓ 189€

lehen 229€

erreflexuen aurkako betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com

